

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko uztailaren 5etik 11ra astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/07/07

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Lan-hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko ekainaren 27koa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, haragi-industrien hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **13965 xedapena- 66 or.**

2025/07/09

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Lan-hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko ekainaren 27koa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, Irakaskuntzaren eta prestakuntza ez-arautuaren hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **14198 xedapena- 39 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

2025/07/05

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Erregistro Zibila.** Instrukzioa, 2025eko uztailaren 3koa, Segurtasun Juridiko eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, uztailaren 21eko 20/2011 Legearen 44.4 artikulua aplikatzeari buruzkoa, eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko urriaren 9ko Instrukzioa, zentro sanitarioek jaiotzen jakinarazpen elektronikoari buruzkoa, aldatzekoa. **13786 xedapena- 2 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Ibilgailuak bidetik kentzea eta gordailuan uztea.** Ebazpena, 2025eko uztailaren 2koa, Trafiko Zuzendaritza Nagusiarena, 2024ko urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean goi-geruzetako depresio isolatuak eragindako kalteek ukitutako ibilgailuak bidetik kentzea eta tratatzea arautzen duena. **13788 xedapena- 17 or.**

2025/07/07

- **OSASUN MINISTERIOA. Organoak ateratzea eta transplanteatzea.** SND/697/2025 Agindua, ekainaren 30ekoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita 1987ko ekainaren 24ko Agindua, giza organoak eskuratu, atera, transplantatu, txertatu edo ezartzearen arloan GIBaren kontrako detekzio-probei buruzkoa. 13871 xedapena- 4 or.

2025/07/09

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 8/2025 Errege Lege Dekretua, uztailaren 8koa, ekimen eta programa batzuk salbuespenezko interes publikoko gertaera gisa deklaratzekoa. 14083 xedapena- 9 or.
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Justizia Administrazioari Laguntzeko Erregistro Administratiboen Sistema.** 607/2025 Errege Dekretua, uztailaren 8koa, Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzen duen otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. 14085 xedapena- 19 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2025/07/07

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 2/2025 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Zerga Bereziei buruzko uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailea. 3021 xedapena- 8 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/07/07

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 2025ko ekainaren 25eko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, Foru Dekretu Arauemaile hau baliozkotzen dauena: 2/2025 Presako Foru Arau-Dekretua, ekainaren 12koa, «UEFA Europa League 2025» txapelketako finalaren zerga-araubidea arautzen duena, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan aplikatzekoa. I-742 xedapena- 1or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO